

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

Agindua, 2021eko irailaren 15ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Vitoria-Gasteizko udalerriko Judimendi auzoari zabaltzea birgaitze integratuko areetarako oro har finkatuta dagoen finantzaketa kualifikatua

AURREKARIAK

1. Vitoria-Gasteizko Udalak idatzi bat bidali zuen birgaitze integratuko areetarako zehaztuta dauden dirulaguntzak eskatzeko, Judimendi auzoarentzat. Idazkiarekin batera, hauek bidali zituen: eremuaren mugaketa-planoa, deskribapen- eta justifikazio-memoria, gizarte- eta hirigintza-azterlana, ekonomia- eta finantza-azterlana eta jarduketa-programa.

2. Eremu horren jardute-esparruaren mugaketa honako hauetan oinarritzen da: espedienteen jasotzen diren agirietan, Udalak aurkeztutako mugaketa-planoan, eta organo honetara atxikitako langileriak egindako inguruaren begizko ikuskapenean. Mugaketa agindu honi atxikitzen zaion planoan zehazten da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila da espediente hau ebazteko organo eskuduna, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuan eta ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan.

2. Aipatutako abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak, horretarako emandako agindu baten bidez eta lurzoru eta hirigintza zuzendaritzaren alde aurreko txostenaren ondoren, birgaitze integratuko areetarako finkatuta dauden dirulaguntzak eman ahal izango dizkie aipatutako Dekretuaren 9.2 artikuluan definitutako eremuei, salbu eta area horiek kudeatu eta burutzeko birgaitze plan berezia idatzi behar bada.

3. Kasu honetan bete egiten dira 317/2002 Dekretuaren 9.2 artikuluan finkatutako baldintzak, hau da, degradazio ekonomiko-soziala eta urbanistiko-arkitektonikoa. Ondorioz, area degradatutzat hartu da Vitoria-Gasteizko Judimendi auzoa, 2021eko maiatzaren 24an emandako txostenaren arabera. Txostena espedientearen dago.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Baimentzea abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako birgaitze integratuko areetarako dirulaguntzak ematea Vitoria-Gasteizko Judimendi auzoan burutuko diren babespeko birgaitze-jarduketegi.

Bigarrena. Agindu honen berri ematea Vitoria-Gasteizko Udalari eta Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera; horrek ez du esan nahi argitaratu ezin daitekeenik, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 15a

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua

IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ

